

Garia eta garoa

Joxean AGIRRE

Arrratsalde batean irakurri nuen Anariren “Gari eta goroldiozko” intimo, elegante eta dotorea, estilo ariketa gisa ere har daitekeena. Bere amaren mundura eramaten zaitu eta liburua bukatzean galsoroen usain eta olibondo zaharren lurrinez beteta duzula iruditzen zaizu eserita zauden lekua. Nerea Ibarzabalen “Bar Gloria”-n ere baserri giroa ez dabil urruti eta liburua ixten duzunean idien lurrunaren izerdi usaina suma dezakezu airean. Bazoaz Miren Gorrotxategiren “33 ezkil”-era edo Miren Amurizaren “Basa”-ra eta haietan ere baserri giroa da nagusi.

Sektorea ekonomia aldetik okerren dagoenean jarri da nonbait modan baserria. Mikel Intxaustiri irakurri nion zinemako karteldegietan ere badirela hiruzpalau film giro horretara garama-

tzatenak. Pizten duzu telebista (nik gaueko zortziak aldera bakarrik pizten dut) eta Aritz Ganboa agertzen zaizu, “Biba Zuek” programan, Arruazuko bere ardiez inguratuta eta sekulako aldarriak eginez eta badirudi ikusleek jarraitu egiten diotela. Badirudi mundu guztiak daramala baserritar bat gordeta bere baitan.

Aitortzen dut burgesiak bere xarma duela, janzkeran, bere kultura jasoan eta manera dotoreetan adierazten dena. Langile jendeak ere badu bere epika, baina baserritarrok ere baditugu gureak diren baloreak: lanari diogun atxikimendua, indarraren kultura, izerdiaren mitifikazioa eta, psikologiari dagokionez, jatortasuna eta sanidadea, bertute hau denoi iritsi ez bazaigu ere.

Banuen lagun bat, ikastola handi bateko zuzendari urteak eman zituen, eta

irakasleak kontratatzeko orduan hutsik egiten ez zion metodoa erabiltzen zuela. Hautagaien zerrendatik baserritarrek lehenesten zituen eta ondoren telefonoz deitzen hasi eta amak ez zegoela etxean, lanera joana zela erantzuten bazion, ia zer lanetara joana zen galdetzen omen zion eta «bai, sega bizkarrean duela ikusi dut» eransten zionean, biharamunean bertan lanean has zitekeela esaten omen zion.

Gure herriko enpresari ezagun batek ere, Martzial Uzinek, pertsonal buruak norbait lan eske joana zela esaten zionean «baserritarra al da?» galdetzen omen zuen.

Neuk ere inguruan norbaiti buruzko gorespenak egiten ari direla, oso jatorra dela entzuten badut, baserritarra izango dela pentsatu ohi dut. •

Matxista uztak

Amagoia MUJIKATELLERIA

Nola jarraitu dezakegu gosaltzen albistegietatik kafesnera egunero-egunero emakume erailak erortzen zaizkigun bitartean?

Gaitzespenak gaitzesten hastekotan naiz, ez baitakit zerbaiteko balio ote duten. Haserrea eta amorrua trabatzen zaizkigu egunero eztarrietan eta aurrea segitzen dugu, kaleetan gora eta behera, ezer egin ezin duela sentitzen duenaren pausaje tristeaz. Indarkeria matxistara ohituta gaude, azala gogortuta daukagu. Batzuetan ematen du,

gainera, dosi batzuetara eginak gaude-la. Emakume hilen gorpuk mahai gainean pilatzen direnean asaldatzen gara. Hau gehiegizkoa da, inoiz gutxiegi izan balitz bezala.

Askotariko moduak erabiltzen ditu hiltzaile matxistak bere biktima akabatzeke. Batzuetan bere buruaz beste egiten saiatzen da ondoren, beste batzuetan krimena gordetzen saiatzen da, behin baino gehiagotan Poliziaren aurrera agertzen da, «nik akabatu dut» esanez, matxiruloen koderen bateko balentria ekintza bat balitz bezala. Bes-

te askotan, seme-alabak akabatzen ditut, emakumeari hil arteko mina eragitearren.

Alegia, batean eta bestean trebatutako erasotzaileak ematen jarraitzen du gure jendarteak, sagarrondoak sagarrak nola. Sagarrondoak sagarrak emateko baldintza batzuk behar ditu; ura, eguzkia, gaitzetatik libre egotea... Agian arazoa da gure jendarte honek erasotzaile matxistak oparo hazten segitzeko baldintzak sortzen dituela oraindik. Matxista uztak biltzeaz kokoteraino. •